

TTAKUN (H)ERRENKA

Inbertsio fondoak aukeran

E

skatologiko jarri zitzaigun Jose Luis hauteskunderen ondoren gainera zetorkiguna aurreikusiz-edo.

Ez zen tronpatu; Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskunderen biharamunean ari natzaizue idazten, eta Espainiarri dagokionez, emaitzak aski argiak izan dira. Gehiengo absolutua PPrentzat, inoizko absolutuena alafede. Komunitate autonomo guztietan dira eskuindarrak garaile, Katalunia eta EAEn salbu.

Egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuta eta PPk egingo duena gogoan hartuz (ez da aztia izan behar hori susmatzeko), agerikoa da etorkizun beltza datorkigula. EAEko emaitzak ezberdinak izan direlako pozik dago jende andana, baina tira, momentuz behintzat, Espainiako Gobernuaren politikak pairatu beharko ditugu hegoaldekook, eta aurreikuspenak, zentzu horretan, aski etsigarriak dira. Espainiako Gobernuarenak eta EAEko edo Nafarroakoarenak, hiruetan baitu esku-hartzea PPk gaur egun. Haatik, Eusko Jaurlaritzarako hauteskunderen aurrepenaren inguruko zurrumurrua geroz eta handiagoa da, eta ez litzateke harritzekoa izango hilabete batzuen buruan Patxi Lopezek hauteskunderen aurreratzearen berri ematea. Lehendakari izateko Lopezek zilegitasunik ez duela iruditzen zait niri ere; ezagun denez, EAEn lehenengo indarra izatetik gertu dagoen adierazpen politikoaren ilegalizazio bidegabeari esker izendatu zutelako. Baina tira, azken bi hauteskundeetako PSE-EEren emaitza kaskarren aitzakian apartatzen bada ere gaitzerdi.

Dena den, ardura gehien eragiten didana nazioarteko testuingurua da, eta bereziki, Europakoa. Hor nonbait irakurri ahal izan dudanez, alderdien papeletak izan beharrean, Goldmann Sachs, Citigroup, J.P. Morgan, Santander eta gainontzeko banku eta inbertsio fondoak izan beharko

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

genituzke hautatzeko. Inork demokratikoki aukeratu ez dituenen esku baitago geroz eta gehiago herritarron patua. Arazo horri egin behar zaio aurre beste ezeri baino lehenago, eta horretarako Europa mailako alderdi eta mugimendu ezkertiar eraldatzaileen elkarlana eta ekintza premiazkoa da.

Marx zaharrak esan zuen gisan, demokrazia ez baita egiazkoa izango ekonomikoa izan arte, hots, produkzio-bideak langileen esku geratu arte (agur bero bat esaldi honen lepotik barre egin duzuen teknokrata liberalei). Lau urtean behin bozkatzea ez dago gaizki, baina geroz eta agerikoagoa da kosmetika ariketa baten antz handiagoa duela. Horregatik ez naiz hain baikorra hauteskunde emaitzen biharamunetan, arestian aipatutako bankuetako zein beste zenbait nazioarteko erakundeetako –FMI, Mundu Bankua eta abar– buruak imajinatzen baitituz atiko batean irri eta algara alderdien teatroari begira.

Ez nuke erori nahiko halako anarkismo negatzaile batean, baina ezker abertzalearen onarpen instituzionalaren –legalizazioa ez baita oraindik iritsi, ez dezagun ahantzi– ondorengo hordialdiak arazo sistemiko sakonak estaliko ez ote dizkigun beldur naiz. Esaten da maiz ezkerria galdua dabilela aspaldi handitik. Ez nago ados. Teorikoki eta diskurtziboki lan ona egin izan da azken hamarkadetan; hainbeste ezen marxismoaren birloratzeaz hitz egiten baita sarritan. Filosofia politikoaren lehen lerroan ditugu Laclau, Butler, Mouffle, Negri, Zizek, Perry Anderson, Badiou, MacKinnon, Eagleton, Balibar eta enparauak; Huntington, Fukuyama eta beste hainbat, ordea, ez dira sobera ageri azken boladan. Gaur egungo auzietako bat, ostera, lanketa horren artikulazio estrategikoa osatzea da, zeina nazioartekoa izango baita edo ez da izango. ■



«
 Lau urtean behin bozkatzea ez dago gaizki, baina geroz eta agerikoagoa da kosmetika ariketa baten antz handiagoa duela. Horregatik ez naiz hain baikorra hauteskunde emaitzen biharamunetan
 »